



BARREN
TOKIKOM

Emakumezkoen futbola indarrean



Special days
Azaroak 18 eta 19

Erkidezko stockean
Ibilgailu berriak, 0Km eta ia berriak
Berehala jasotzeko motuan

Hartu zure txanda

NAIA CAR

Apalategi auzoa,1
Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

☎️ 📞 943 70 70 33

WLTp emisio konbinatuak (g/km): 110-169, WLTp kontsumo konbinatua (l/100 km): 4,8-7,4. PHEV: WLTp (g/km) konbinatu haizatuak: 29-38, WLTp kontsumo konbinatu haizatuak (l/100 km): 1,3-1,7. EV: WLTp kontsumo konbinatua (kWh/100 km): 15,3-15,9. CO2 WLTp emisioak (g/km): 0. Kontsumo MOVES II planaren baldintzak www.kia.com-en.
*Kontsumoaren Kiaren berri-estekaturat. **Kontsumo 10 Kia Konpromisoaren baldintzak www.kia.com-en.

10 Kia**
Konpromiso

Naia Car



‘Euskaraz izango gara’ lemapean kaleratu du aurten Danobatgroup-ek euskararen eguneko lehiaketa



■ *Euskaraz izango gara* lema aukeratu du aurten Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Nazioarteko Egunaren lehiaketarako. Lehiaketa kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei zuzenduta dago.

■ Orain 21 urtetik hona ari da kooperatiba taldea bere egunerokotasuna euskaraz izateko lanean, eta aurten, 2021-2024 plan estrategikoa diseinatu eta euskara planeko erronkak eta helburuak ere onartu dira. *Euskaraz izango gara* lema modu argian jasotzen du kooperatiba taldearen erabakia eta konpromisoa.

Danobatgroup industria taldea espezializatuta dago makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan. Danobatgroup kooperatibaz gain, Danobat, Goiti, Soraluze, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Danobatgroupek harreman sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu. Baina Euskal Herriko lantegietako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko erabakia hartua du, eta horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak eta lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

Euskaraz izango gara da Danobatgroupek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta agertoki hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan...

Baina, egunerokotasunetik harago, gizarteari ere euskarare-

kiko duen konpromisoaren berri eman nahi dio Danobatgroupek.

Aurten, aurreko urteetako bidea jarraituz, Danobatgroupek lantegiak dituen herrietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke euskararekiko duen konpromisoa ezagutzera emateko Euskararen Eguneko lehiaketaren bidez.

Lehiaketan parte hartzeko, ondorengo helbidean sartu behar da: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html>

Erantzunak Danobatgroupeko webgunean aurkitu ahalko dira. Horrez gain, industria arloan euskararen erabilera laguntzen duen hitz teknikoak osatutako hiztegia eskura dago: <https://www.danobatgroup.com/eu/euskara>. Hiztegian sartzeko hitz berriren bat proposatzeko aukera ere ematen du. Azaroaren 30era arteko epea egongo da lehiaketan parte hartzeko, eta abenduaren 3an erantzun zuzena eman dutenen artean sari hau zozkatuko da: gaua eta gosari ederra bi pertsonarentzat Bizkaiko zuhaitz-etxe batean.

Euskaraz izango gara.

 **DANOBATGROUP**

**euskaraz
izango
Gara**

HARTU PARTE DANOBATGROUP-EN
EUSKARAREN EGUNeko
LEHIAKETAN!



Sartu lehiaketako estekan, erantzun galdera eta irabazi gau berezi bat 2 lagunentzat Bizkaiko zuhaitz-etxe batean.

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html

Parte hartzeko azken eguna: 2021eko AZAROAK 30 | 00:00



azaroaren 22tik
abenduarren 5era

“Uste dugu kontu apur bat izan behar dugula umeei euskaraz egiteko eskatzearekin”



Julen, Paule, Ane eta Eukene

Lau laguneko familia osatzen dute Eukene eta Julen ama-aitek eta Paule eta Ane alabek. Paulek lau urte ditu eta Anek zazpi hilabete. Umeei euskaraz egiten diete beti gurasoek, “ez zaigu erdera irteten”.

Ane txikia da oraindik, baina Paule “deskubrimendu fase batean” dagoela esan digute. “Gurekin beti euskaraz egiten du, baina ikusten ari da gero eta aukera gehiago duela beste hizkuntza batzuk ere erabiltzeko”. Mundu berri bat deskubritzen ari da, eta “uste dugu kontu apur bat izan behar dugula euskaraz egiteko eskatzearekin. Euskaraz egiteko eskatu beharrean, euskaraz eginez gidatzen ditugu umeen berbaldiak”.

Gurasoek, haien artean, euskaraz egiten dute gehiena, baina, noizean behin, gaztelaniaz ere egiten dute. “Hori bai, gure hizkuntza-portaera ez da aldatzen umeak aurrean egon edo ez”.

Julenek aitortu digu lagunartean gaztelaniaz egiteko dezenteko ohitura duela berak, denak euskal hiztunak izan arren, eta kontziente dira hori umeek ikusten dutela. “Umeei era naturalean hartuko dute lagunartean bi hizkuntzetan berba egitea, eta badakigu ez dela egokiena”. *Haurren aurrean* ekimenak zer pentsatua eman die, eta ariketa egingo dute, “beti baitago zer hobetua”.

Pozik daude “gure alabak giro euskaldunean bizitzen eta hezten ari direlako” eta hizkuntza guztiekiko maitasuna transmititzen saiatuko dira, “euskararekiko sentsibilitate bereziarekin”.

“Umeei ez dute egingo guk esaten dieguna, ikusten edo entzuten dutena baizik”



Zelmar, Lara, Deysi eta Xabier (katua, Misi).

Uruguaiakoak dira Deysi eta Zelmar, baina 2003tik bizi dira Euskal Herrian. Elgoibarrera duela zortzi urte etorri ziren, Larak urtebete baino ez zuela. Xabier, berriz, Elgoibarren jaio zen duela sei urte. Deysik erantzun die gure galderi.

Deysik esan digunez, saiatzen dira haien umeei euskaraz egiten. Gaztelaniaz egiten dute normalean, haien ama-hizkuntza delako, baina egunero euskaraz zerbait egiteko ahalgina egiten dute.

Berari euskaraz egiteko eskatzen die umeei, “euskara ikasten ari naizela esaten diet, eta beraien laguntza behar dudala euskara ondo ikasi eta hitz egiteko”.

Gainontzeko gurasoekin lagunartean daudenean, gehienetan gaztelaniaz hitz egiten dute, “baina euskaraz dakitenekin saiatzen gara euskaraz egiten; nire modura, baina niretzat garrantzitsua da euskaraz hitz egitea”. Umeak aurrean egon edo ez, berdin jokatzen dute.

Ariketa oso interesgarria begitandu zaio Deysiri, eta badu parte hartzeko asmoa. Izan ere, “umeei ez dute egingo guk esaten dieguna, ikusten edo entzuten dutena baizik. Guk euskaraz egiten badugu haiek ere egingo dute, bestela ez”.

Kanpotik etorritakoak dira Deysi eta Zelmar, “baina hemen bizi gara eta hemengo hizkuntza erabili behar dugula uste dugu. Horregatik gaude euskara ikasten, zaila den arren”. Hala ere, gauza bat argi du: “garrantzitsuena euskaraz dakitenek erabiltzea da. Guk ikasi eta erabiliko dugu, baina euskara dakizuenok erabiltzen ez baduzue ...”.



ANE KORTABERRIA

Ikasle ekintzailea

Begirada etorkizunean jartzen ausartzen zara?

entzun dugun aldaketa klimati-koaren ondorioz, gure ingurue-
tako hondartza asko desagertu eta
Euskadiko kosta itsaslabarrez osatuta
egongo dela nabarmentzen dute.

Gainera, hori gutxi balitz, eguraldian
aldaketa bortitzak izango direla eta gaur
egungo bizi estiloarekin jarraituz gero,
Euskadin esaterako, sekulako pobrezia
gertutik bizi beharko dugula ere entzun
nuen.

Bai, badakit nazkatuta zaudetela noti-
zia txarrak entzuteaz eta arrazoi guztia
duzue. Baina nahiz eta gustuko dugun
hori entzutea hain erosoan izan, noizean
behin errealitateaz jabetzea ondo etor-
tzen da. Adibide bat: Instagramen gai
havei buruzko publikazio edo *instastory*
bat agertzen zaigunean "paso" egin be-

harrean edo telebistako kanalen batean
antzeko zerbait azaltzen bada, bertan ge-
ratu eta azaltzen dena arretaz irakurri edo
entzun, behin egiteagatik ez zaizu ezer
gertatuko-eta.

Argi! Hala ere dena neurrian egin
behar da, noski. Parean dugun infoma-
zioa ez da beti fidagarria izaten eta gai
hauetaz etengabe pentsatzea ere ez da
komenigarria. Filtroa pasatzen eta mugak
jartzen ikasi behar dugu, bestela akabo!

Laburbilduz, aldaketaren parte izatea
nahi badugu, orain da momentua. Buruari
soilik bueltak ematen egon beharrean, ke-
xatu beharrean edo gainerakoei gure etor-
kizuna erabakitzeke aukera eman
beharrean, zuk zeuk zure etorkizuna nola-
koa izatea nahi duzu? Galdera hori bu-
ruan tatuatu eta erabakia hartu.

"Aldaketaren parte izatea nahi badugu, orain da momentua"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Argitaletxea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak
lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia,
Hitza eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi,
Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika **ADM-
NISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu
Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras,
Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olazola,
Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose
Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier
Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GOR-
DAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ HERIOTZAZ

Aurten ere Elgoibarko Almaguer elkar-teak Heriotzari bizia ematen nazio mailako festibalean parte hartu du Udalarekin, Elgoibar Lagunkoia taldearekin eta Morkaikorekin elkarlanean egitaraua antolatuz.

Heriotzaren inguruko beharrak ikusita (dolia, galerak, suizidioa, bakardadea...) orain dela bi urte Hazkunde, Topaketa eta Bilakaerarako Almaguer elkarteak sortu zen. Bizitzaren eta heriotzaren pedagogiaren inguruko proiektuak lantzen hasi ginen, eta bertan, mindfulness, mikrogimnasia, dantza, barkamena, dolua eta beste hainbat tresna erabiltzen ditugu, baina lanketa profesional paraleloa egitearen beharra ikusi

dugu. Horregaitik Death kafeak, hitzaldiak, sensibilizazioa, mintegiak, zineforumak... eskaintzen ditugu, beste elkarte eta erakundeekin elkarlanean lan egiteko konpromisoa, herri zaintzaile baten alde.

Heriotza barneratzeak bizitzan helduago eta trebeago egiten gaitu, egunerokotasuna bere osotasunean bizitzen laguntzen du.

Almaguer Elkarteak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEK edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar ditugu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitz argitaratuko.



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

*Mila esker
zuen konfiantzagatik!*

**Hotzari aurre egiteko
aukerarik onena,
Mora etxeko mantak.**

**Sofarako eta oherako
mantak.**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



**Egin zure
kontsulta.**

Formularioa
betetzen
laguntzen zaitugu
943 82 01 10


Berokuntza


**Etxetresna
elektrikoak**


**Inguratzailer
termikoa**


Argiztapena


**Eguzki-energia
fotovoltaikoa**


**Eguzki-energia
termikoa**


Aeroterminia


Biomasa


Geotermia


**Faktura
elektrikoak**



D

Energia bulego birtuala
energia.debegesa.eus



Brigadako langileek auto-karabana zaratasua egin zuten joan zen astean, lan-baldintzak hobetzea eskatzeko

Udaleko brigadako beharginak kalera irten ziren berriro joan zen asteko eguenean lan baldintza hobek eskatzera, eta oraingoan auto-karabana zaratasua egin zuten herriko kaleetan zehar. ELA sindikatutik jakitera eman dutenez urriaren 29an Udalak deitutako komitearen bileran parte hartu zuten. Bi aldeak batu ziren: ELAko langileen ordezkariak batetik; eta, Udaleko alkatea, idazkaria eta kontu-hartzailea, bestetik. Bilerak bi zati izan zituela azaldu dute. Lehenengoan RPT delakoa, udal sozietateen lanpostuen zerrendak (LZ) berritzeko zirriborroa izan zuten hizpide. ELAtik esan dutenez, 50 urtetik gorako beharginen plazak bere horretan mantenduko zirela agindu zieten, eta baita langile guztiak sartuko dituztela udal sozietateen lanpostuen zerrendan, lanpostuen "egonkortzea" bermatzeko: "Brigadan dauden langile guztien lanpostuak bermatuko direla esan ziguten, eta prozesu administratiboa gainditzen ez duten langileek laguntzaile moduan jarraituko dutela". Brigadako langileen egoera aztertu zuten bileraren bigarren zatian. "Langileek brigadako egoeraren konponbidez galdetu zioten Udalari bilerako bigarren zatian, eta ez duela ezer egin beharrik adierazi zuten udal ordezkariak. Argi gelditu zen Udalarentzat gatazka hau ez dela lehentasuneko", azaldu dute ELAtik. Nabarmendu dute urtebete pasa dela komitea brigadako beharginen egoerari konponbidea emateko ahaleginean hasi zenetik, "eta Udalaren gelditasunak arazoa epaitegira eta kalera eramatera derrigortu du". Era berean diote, Udalak sekula ez duela esan brigadako beharginek arrazoirik ez dutenik: "Are gehiago, bilera honetan esan ziguten Udaleko beste sail batzuetan egoera antzerakoak egon daitezkeela. Honen aurrean ezin da ulertu Udalaren jokaera, eta oso zaila egiten zaigu bileraren lehen partean adierazitakoa sinistea".



EH Bilduren babesa

EHBilduk babesa erakutsi die brigadako langileei, eta esan dute "kezkatuta" daudela langileek bizi duten egoerarekin. Langileen postuak 2017tik eguneratu gabe daudela salatu du, eta Udaleko pertsonal arduradunaren postua oraindik osatu gabe dagoela gogorarazi du Aitziber Aranberri EHBilduko bozeramaileak. Bere ustez, Udal arduradun bezala, Udal langile guztien lan baldintza duinak bermatu beharko litzukete, herritar guztiei merezi dituzten kalitatezko zerbitzuak eskaini ahal izateko. Udal Gobernuaren jarrera ikusita, uste du brigadako langileen eskaerek epaitegiko sententziaren zain egon beharko dutela. Azkenik, Udalari eskua luzatu dio EHBilduk gatazka honetan aurrera egiteko, eta langileen eta herritar guztien mesedetan negoziazio prozesu "serio" bat hasi nahiko balu Udalak, elkarlanerako prest egongo liratekeela gaineratu du.

Historiaurreko gizakiaren bizimodua nolakoa zen azaldu zuten Hezur Museon



Hezur Museoa ate irekien jardunaldia antolatu zuen joan zen astebururako, eta herritar asko hurbildu zen Jose Julian Markezen azalpenak entzutea. Zapatuan museoko atea zabaltu zituen eta, besteak beste, historiaurreko zintzilikarioak egin zituzten eta lehen gizakiak moduan, sua egiten ikasi zuten bertaratu zirenek. Domekan, berriz, garai hartan erabiltzen zituzten arkuak ezaugu eta probatzeko aukera izan zuten, Idortoben. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina antolatzaileak "pozik" agertu dira ekimenak izan duen harrerarekin.

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak herriko eragileekin batera

Udaleko eta hainbat talde eragileetako ordezkariak Lilan, Emakumeen Etxean, aurkeztu zuten Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan osatu duten egitaraua. Elgoibarko alkate Ane Beitiak adierazi zuen azaroaren 25a bezalako egunek Udalaren jarrera berresteko, eta are garrantzitsuagoa dena, indarkeria matxista ekintza isolatu bat ez dela ikusarazteko balio dutela. Pandemia garaiak emakume hauek bizi duten egoera larria areagotu egin duela ere gogorarazi zuen Beitiak, eta indarkeria bikarioa ere aipatu zuen, hau da, gizonetako emakumeari min egitea, seme-alaben bitartez. Egoera honen aurrean, hilabete osorako ekitaldi sorta antolatu dute, besteak beste, tailerrak, hausnarketa saioak eta elkarretaratzea. Joan zen astean hasi ziren ekitaldiak *Erik eta Win* antzerkiarekin, eta datorren astean Uluka batukada, ipuin-kontalaria eta txapa tailerra egingo dituzte. Egitaraua agendan ikusi dezakezue.




Artilea eskuz nola egiten den erakutsi zuten zapatuan Erreminta Makinaren Museoan



Aintzinako ofizioak erakusteko jardunaldien barruan, artilea eskuz nola egiten den ikusteko saioa eskaini zuen Lasturko Goikola baserriko Karmen Esnaolak joan zen zapatuan Erreminta Makinaren Museoan. 40 bat lagunek hartu zuten parte jardunaldian, eta zuzenean ikusi ahal izan zuten prozesu guztia. Artilea egiteaz gain, produktu naturalak erabiliz tindatzen du artilea Esnaolak. Museoko zuzendari Bea Ansolak esan du ekitaldiak izandako "harrera ona" ikusita aurrerantzean ere era honetako jardunaldi eta ekintzak antolatzeko ahalegina egingo dutela.

Azken agurra egingo diote bihar Koldo Aranbururi lagunartean



Urriaren 20an hil zen Koldo Aranburu agurtzeko ekitaldia antolatu dute bere lagun eta kideek biharko. Egurdiko 13:00etan izango da omenaldi-ekitaldia, Giza Eskubideen enparantzan. Haren ingurukoek hartuko dute hitza, kantaldia ere egingo dute eta lore eskaintza ere egingo diote. Ekitaldi publikoa izango da, lagunartekoa, *Koldo beti gurekin* lemapean. Euria egiten badu, udalaxe azpiko arkupeetan batuko dira.

Lurrazalekoengatik ordezkatu ez dituzten lurpeko 65 edukiontzi berrituko ditu Mankomunitateak Debabarrenean

Lurpeko 52 edukiontzi lurrazalekoengatik aldatu ondoren, Mankomunitateak jarraitzen emango die lurpeko edukiontzietan zerikusia duten lanei. Azaroaren 15ean hasita, eskualdeko 65 lurpeko edukiontzi berrituko dituzte bailaran, egoera txarrean daudelako eta hondatu aurretik eguneratzeko beharra ikusi dutelako. Elgoibarren hasiko dituzte lanak, eta ondoren, Ermuan, Eibarren eta Mutrikun jarraituko dute.

Elkarte gastronomikoentzako kanpaina

Bestalde, eskualdeko elkarte gastronomikoei zuzendutako kanpaina hasi du Debabarreneko Mankomunitateak, birziklapen kopurua handitu dezaten. Datozen asteotan, Debabarrenean dauden 130 elkarte gastronomikoak bisitatuko dituzte Mankomunitateko teknikariek, hondakinen birziklapenerako elkarrekin dituzten beharren berri jasotzeko, eta ondoren, baliabideak emateko. Pandemiaren ondoren elkarrekin berriro ere zabalik daudela kontuan hartuta eta haietan sortzen den hondakin kopurua handia dela jakinda erabaki du Mankomunitateak kanpaina hau abiatzea. Kanpaina horrekin lotutako mezua duten sukaldeko mantalak ere banatuko dituzte elkarrekin.



Lagun Betikoak tabernak irabazi du Mendaroko Pintxo Lehiaketa



Urriko azken asteburuan egin zuten pintxo lehiaketako sarrituen berri eman du Mendaroko Udalak: Aurten aurreko urteetan baino taberna gutxiagok hartu dute parte lehiaketan, hiru tabernak, hain justu ere: Uztargi, Lagun Betikoak eta Aitz Beltz. Epaimahi teknikoak Lagun Betikoak elkarrekin aurkeztutako *Bakailoa potxekin* pintxoari eman dio lehen saria eta Uztargiko *Txerri Goxua* gelditu da bigaren postuan. Herritarrek Uztargi tabernako pintxoari eman zioten boto gehien. Botoa eman zuten herritarren artean 50 euroko bi bono zozkatu dituzte: Olga Pascuali tokatu zaio Lagun Betikoak gastatzeko, eta Karlos Beizamari Uztargi tabernan gastatzeko.

Sinadura bilketa egingo dute anbulategiko larrialdi zerbitzua berreskuratzeko

Gaugeroa Pentsiodunen Elkarteak batzarra egin zuen astelehenean, eta beste gai batzuen artean, anbulategiko larrialdi zerbitzua gaia izan zuten hizpide. Anbulategiaren dinamikarekin eta ordutegiarekin oso "kezkatuta" agertu ziren. Esan zuten, Osakidetzak agindu zuen pandemiaren bilakaera hobetzen zenean 20:00ak arteko ordutegia eta aurrez aurreko arreta berreskuratzeko zutelako, baina egoera ez dela aldatu salatu du Pentsiodunen Mugimenduak. Hori dela-eta, sinadura bilketa egitea adostu zuten, astean zazpi eguneko eta egunean 24 orduko zerbitzua martxan jartzeko eskatzeko berriz ere. Mobilizazioekin jarraituko dutela jakinarazi zuten, baina ordutegia 19:00etan beharrean, 18:00etan izango da aurrerantzean. Era berean, bihar Eibarren pentsio duinen alde egingo den manifestaziora joateko deia egin diete herritarrei.



Arnaldo Otegi, Jesus Egiguren eta Pello Rubiorekin mahaingurua antolatu dute hilaren 23rako, bizikidetza jardunaldien barruan

Elgoibarko Udaleko Bizikidetza Mahaiak, Herritarren Bizikidetza Foroarekin elkarlanean, *Bizikidetza ereiten* jardunaldien bigarren edizioa antolatu du. Bi ekintza egingo dituzte: azaroaren 16an *Non dago Mikel?* dokumentala emango dute. 1985eko azaroa da. Mikel Zabalza, autobus gidari gaztea, beste pertsona batzuekin batera atxilotu du Guardia Zibilak, terrorismoaren aurkako operazio batean. Gainerako gazteak askatzean basatiki torturatua izan direla salatzen dute, baina Mikel falta da. Agintariak argudiatu dute ihes egin duela, eta bizirik aurkitzeko itzaropena desagertzen ari den bitartean, Euskal Herriko kaleak garrasika hasi dira: Non dago Mikel?. 19:00etan izango da Musika Eskolan, gaztelaniaz, eta horren ostean, Laura Pego doktore eta EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuaren ikertzaileak hitzaldia eskainiko du.

Azaroaren 23an, beriz, *Bakearen sukaldeak* mahai inguruan batuko dira Arnaldo Otegi, Jesus Egiguren eta Pello Rubio. Maider Maraña Baketik Fundazioko teknikariak moderatuko du mahaiak. Elgoibarreko Txillarre baserrian bakerako baldintzak landu ziren



2000. hamarkadan, eta hango protagonistak batuko ditu ekitaldiak. 19:00etan izango da, Musika Eskolan.

URA Uraren Euskal Agentziak eta Mendaroko Udalak lankidetzak protokoloa sinatu dute ibai ertzak garbitzeko

URA Uraren Euskal Agentziak eta Mendaroko Udalak lankidetzak protokoloa sinatu dute ibai-ibilgu eta ertzetan garbiketa lanak egiteko. Bi erakundeen arteko konpromisoa zehazteaz gain, ekintza plana ere adostu dute, ibaiertzeko landaredian kalteak ekiditeko eta, oro har, ibai-ekosistema eta bere biodibertsitatea babesteko.

Jaiotza Lehiaketa antolatu du Elgoibarko San Bartolome Parrokiak

Elgoibarko familia eta lagun taldeentzako Jaiotza Lehiaketa antolatu du Elgoibarko Parrokiak. Gehienez sei laguneko taldea osatu daiteke, eta partaide berak ezingo du lan bat baino gehiago aurkeztu. Jesusen jaiotza irudikatu behar da, baikoitzak nahi duen materiala erabilia, eta lanak gehienez, 75x40 zentimetroko neurria eduki behar du. Interesatuak elgoibarkojaiotzak@gmail.com helbidera idatzita eman beharko dute izena, abenduaren 13a baino lehen, eta mezu horretan partaideen izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbakia zehaztu behar dira. Lanak abenduaren 19an aurkeztu behar dira Aita Agirre kulturegunean, baikoitzari egokitutako orduan. Epaimahai tekniko batek aukeratuko ditu lanik onenak, baina antolatzaileek jakinarazi dute parte hartzen duten guztientzat egongo direla sariak. Azkenik, lan guztiak ikusgai jarriko dituzte Aita Agirre kulturegunean bertan, abenduaren 21etik 24ra eta 26tik 30era. Erakusketa amaitu ostean, urtarrilaren 7an jaso behar dira lanak, 17:00etatik 19:00etara, eta jasotzen ez diren lanak bota egingo dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

Emakumeentzako bizipen tailerrak

Almaur elkarteak emakumeentzako bizipen tailerrak antolatu ditu, Udalaren laguntzarekin. Urriaren 30ean eskaini zuten lehenengo saioa, eta datozen asteetan beste bi tailer egingo dituzte: Azaroaren 20rako *Neure buruaren boterea* izeneko saioa prestatu dute, eta abenduaren 4rako, beriz, *Nork bere burua zaintzea*. Mugimendu, sormen, arte plastiko eta mindfulness dinamika desberdinen bidez emango ditu saioak Belen Capape adituak. Egun osoko saioak izango dira, 10:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako 656 869 534 telefonora deitu daiteke.



Harrobia sendo

2017. urtean hartu zuen C.D. Elgoibarko presidente kargua Jon Basurtok, eta bere lantaldearekin batera hasi zen klubean lanean. Hainbat helburu jarri zituzten, eta horietako bat emakumezkoen futbola berreskuratu eta sustatzea izan zen. Gogor dihardute egiteko horretan, eta egindako lana hasi da bere fruituak ematen: Nagusien emakumezkoen futbol taldea martxan da, eta Futbol Eskolan dabilzan 170 umetatik, 50 bat dira neskak. Futbol Eskolan gogor dihardute lanean etorkizunerako futbolariak prestatzen, eta une honetan harrobia sendo dago. Emakumezkoen futbolean jarri dugu gaurkoan begia.

- AINHOA ANDONEGI -

Saioa Aranburu nesken erregional taldeko kapitaina da, baina lesionatuta dagoenez, Sara Arriolak betetzen du orain bere lekua. Futbol ibilbide desberdina izan dute batakatuek. Saioa 13 urterekin hasi zen futboleko jokatzeko, eta CD Elgoibarko iritsi aurretik Mutrikun jokatzeko. Sara Arriolak txikitatik izan du etxean futbolarik harremana aita futbolaria izan delako, baina CD Elgoibarko iritsi zen arte sekula futboleko jokatzeko gabekoa zen. 2018an sortu zuten nagusien taldea, eta berak azaldu du talde honen hazia nola erein zuten: "Nire kuartilako batzuk eskiatzera joan ziren asteburu batean, baina azkenean ezin izan zuten eskiatu, eta telebista ikusten ari zirela nesken futbol partida bat tokatu zitzaizkien". Partida hark piztu zien futboleko jokatzeko gogoak. Elgoibarko talderik ez zegoela bazekiten, baina beraien futboleko jokatzeko gogoak zuten eta seguru zeuden beraien egoera berean aurkituko zituztela neska gehiago. Mezua zabaldu zuten sare sozialen bidez, eta berehala batu zitzaizkien taldea osatzeko adina neska. 20-25 bat emakumez osatutako taldea elkartu zuten bi astetan, eta babes horrekin, CD Elgoibarko Zuzendaritzarengana jo zuten. Zuzendaritza ere une hartan ari zen hain justu emakumezkoen futbola suspertu nahian, eta neska horien eskaera egi bihurtu ahal izateko unerik aproposenean iritsi zen. Batzuen eta bestearen interesek bat egin zuten, eta 2013-14 denboraditik desagertuta egon den emakumezkoen taldea martxan jarri zuten berriro.

Eibar, Mendaro, Sorluze, Ermua eta Elgoibarko 25 bat jokalarik osatzen dute taldea, eta 16tik 24 urtera arteko adinekoak dira guztiak. Hiru urte pasatu dira taldea sortu zutenetik, eta denbora horretan gauzak asko aldatu direla adierazi dute Sara eta Saioak. Hasieran futbolaz ezer gutxi zekitelako aitortu dute, eta oraindik ere ikaste prozesu batean daudela diote. Jokalari bakoitzak bere izakera dauka, jokatzeko moduak desberdinak dira eta hori guztia nola uztartu ikasten ari dira, baina harro diote, orain "talde bat" direla. Talde giro "bikaina" dute, eta taldekideak izateaz gain, lagunak ere badira. Batzuen esperientziak laguntzen die besteiei egoera berriak kudeatzen, eta elkarrengandik ikasten ari dira etengabe. Bizitzarako eskola ere bada beraien futbol taldea eta bizitzarako ezinbestekoak diren hainbat balore ematen dizkie futbol taldeak, besteak beste, errespetua, konpromisoa, elkarlana eta adiskidetasuna lantzen dituztelako. Eta, gainera, kirola egiten dute. Emakumeak eta kirolariak dira, eta harro daude. Serio hartzen dute jokoa, eta irabazterako iritetan dira berdeguna: "parte hartzea ondo dago, baina denoi gustatzen zaigu irabaztea, eta gu irabazterako iritetan gara", esan du Arriolak. Urduritasunez bizi dituzte partidak, "urduritasun kolektiboa" da, eta penak eta poztasunak taldean konpartitzen dituzte. Liga irabaztea dute helburu, eta horren bila iritetan dira asteburuero berdeguna.



Pozik daude CD Elgoibarrek emakumezkoen futbolaren alde egiten duen lanagatik, baina iruditzen zaie oraindik ere gizonezkoen futboletik oso urrun dagoela emakumezkoena, eta borroka bikoitza egiten dutela diote. "Guk ahalegin handiagoa egin behar dugu futbolean leku bat izateko". Horrez gain, tarteka komentario "matxistak" ere jasan behar izan dituzte: "Ligako lehenengo partida alde handiz irabazi genuen, eta entzun behar izan genuen

ea besteek ez zeukaten atezainik. Ondo egindako lana aitortzea nahi dugu, besterik ez". Aurrera begira, neskek Elgoibarren futbolean jokatzeko mutilek besteko aukera izatea nahiko lukete, eta gustatuko litzaieke bide horretan beraien lana baliagarria izatea. Futbol Eskolan dihardute Sarak eta Saiok ere entrenatzaile lanean, eta poza ematen die umeen artean horrenbeste neska ikusiteak. Harrobia "sendo" dagoela uste dute.



JON BASURTO C.D. ELGOIBARREKO PRESIDENTEA

“Haundi kenduta,
gainerako mailetan
berdintasuna
dago klubean”



◆ Lehendakari kargua hartu zenuenean, zein egoeratan zegoen kluba?

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiet gure aurretik klubean lanean jardun zuen zuzendaritzari. Gure lana azken batean bountarioa da, eta ahal dugun heinean klubarentzat eta herritar guztiarentzat lan egiten dugu. Dena dela, kluba apur bat desantolatuta aurkitu genuen iritsi ginenean. Bost-sei urte pasatu dira ordutik, eta lan handia egin dugu tarte horretan. Une onak eta txarrak pasatu ditugu, baina uste dugu bost urteren ondoren kluba antolatuta dagoela berriro; ondo antolatuta. Hala ere, lanean jarraitu behar dugu, eta hori asko kostatzen da. Egindako lanaz harro gaude zuzendaritzako kideak, ikusten dugulako kluba oso egoera onean dagoela gaur egun. Ikusi besterik ez dago aurtengo inskripzio kopurua: 475 neska-mutil ditugu klubean, eta hori sekulakoa da.

◆ Zuzendaritzan sartu zinetenean emakumezkoen futbola sustatzeko konpromisoa hartu zenuten. Zein zen egoera gai horretan iritsi zinetean eta zelan dago gaur egun?

Klubera iritsi ginenean ez zegoen emakumezkoen futbol talderik, eta inskripzioetan ez zegoen neskarik klubean. Gaur egun 101 daude. Emakumezkoen futbola sekulako gorakada izaten ari da, eta ez Elgoibarren bakarrik. Esango nuke estatu guztian nabaritzen ari dela gorakada hori, baina Elgoibarri dagokionean gorakada sekulakoa izaten ari da. Beste herri batzuetan bazeagoen lehendik emakumezkoen taldea ere, baina gu zerotik hasi ginen, eta aurten horrela jarraitzen badugu, datorren urtean estruktura guztia izango dugu emakumezkoetan. Hori guretzat izugarria da, ez genuen uste bost urtean horrelakorik lortuko genuenik, beraz, gure helburua bete dugula esan dezaket. Hala ere esan behar dut ez dela golpera etorri hau guztia. Gure lehengo urtean bost edo sei neskek bakarrik eman zuten izena, eta konturatu ginen ez zela erraza izango neskek klubera erakartzea. Argi geneukan lan egin beharra geneukala, eta hala egin genuen. Datozen urteetarako nahiko genuke estruktura hori guztia mantentzea. Horretarako ezinbestekoa izango da Futbol Eskolan dabil-

tzan neskek futbolean jarraitzea eta horretarako lan egingo dugu. Gazte horientzat oso garrantzitsua da ikustea emakumezkoen talde nagusi bat dagoela klubean eta futbolean jarraitzen badute talde nagusira iristeko aukera izango dutela. Covid 19ak lagatzen digunean saiatuko gara emakumezkoen talde nagusiko jokalariek eta gazteak elkar-ezagutu daitezen, eta nahi ditugu herriko neskek erakarri Mintxetara futbola ikustera. Emakumezkoen futbolak jarraitzaile asko ditu, Haundiren pareko zaleak dituela esatera auzartzen naiz. Gu iritsi ginenean klubera Mintxetara ez zen ia inor etortzen, eta azken urteetan Haundiren eta emakumezkoen talde nagusiaren partidak ikustera jende asko etortzen da. 250-300 lagun etortzen dira Mintxetara partidak ikustera, eta hori lorpen handia da.

◆ Zer egin du klubak bost-sei urte hauetan horrenbeste neska erakartzeko?

Lana eta lana. Helburuetako bat kluba plazara ateratzea izan da, eta horrela lortu dugu herritarrak, eta neskek bereziki, guregana erakartzea. Futbola orain arte Mintxetan kontzentratuta egon da, eta oso jende gutxi etortzen zen Mintxetara. Orduan erabaki genuen futbola jaistea plazara. Horretarako hainbat ekintza antolatu ditugu azken urteetan, besteak beste, nesken futbolaren eguna, futbol campusak... Ekimen horiek harrera ona izan dute, eta emaitzak ematen ari dira. Sanlo ere hor dago. Oso ondo lan egiten dute bai mutil eta neskekin, eta nesken artean, bereziki, eskubaloirako joera egon da urteetan, baina orain esango nuke joera hori hasi dela aldatzen, eta gero eta neska gehiago ari dira futbolerako izena ematen. Orain dela bi-hiru urte sekulako suertea izan genuen futboleko jokatu nahi zuten 20-24 neska etorri zitzaizkigulako. Futbol Eskolan ere neska pila batek eman dute izena, eta oso pozik gaude. Baina lanean jarraitu behar dugu honek irautea nahi badugu, ez dago besterik. Gauzak antolatzen segitu behar dugu, jendea ondo tratatzen, ahalik eta entrenatzaile edo formatzaile onenak lortzen...

◆ Zein izaten da zuen zailtasunik handiena?

Hezitzaile onak aurkitzea asko kostatzen zaigu. Guretzat en-

trenatzaile hutsak baino gehiago dira umeekin lanean ari direnak, hezitzaileak dira eta horiek onak izatea ezinbestekoa da. Hamabi bat ditugu une honetan Futbol Eskolan, baina hala ere, hezitzaile faltan gaude. Aurten emakumezkoak ere ditugu hezitzaile lanetan: Emakumezkoen taldeko jokalaririk batzuk ari dira neska gazteak entrenatzen, Marta Diez zuzendaritzako kidea ere hezitzaile lanetan ari da, Ruth eta Itziar Gurrutxaga ere bai... Klubak ordaindu die titulazioa ateratzeko ikasketak, eta denak tituluarekin ari dira. Klubak inbertsio handia egin du titulazioak lortzeko ere bai, eta orain fruituak ikusten ari gara.

♦ **Gizonezkoen eta emakumezkoen futboleko desberdintasunak nabarmenak dira. CD Elgoibarren saiatzen zarete desberdintasun horiek murrizten?**

Bai, jakina. Herriko futbol talde erreferentea Haundi izan da historikoki herritarrentzat, eta askorentzat gaur egun ere hala da oraindik, baina Haundi kenduta, gainerako kategoria guztietan berdintasuna dago klubean. Orain dela urte batzuk emakumezkoen talde bat ere egon zen klubean eta hura ere erreferente izan zen garai hartan. Gustatuko litzaiguke gaur egungo emakumezkoen talde nagusia ere erreferente bihurtzea herrian. Ez dakit inoiz iritsiko diren parera Haundi eta emakumezkoen talde nagusia, baina guk horretarako pausoak emango ditugu. Talde berria da, eta oraindik urte batzuk beharko ditugu talde hori indartzeko, baina nik uste dut lortu daitekeela CD Elgoibarko bi talde nagusiak parekatzea.

♦ **Duela hiru urte etorri ziren 25 bat neska klubera futboleko jokatu nahi zu-**

tela esanez. Nola hartu zenituzten?

Eskuzabalik hartu genituen, eta hiru urte hauetan gure harremana asko sendotu da, gainera. Gure helburuarekin bat zetorren beraien inizatiba eta asko poztu ginen. Gure nahia talde hau haztea da, eta horretarako denbora behar dugu. 6-7 neska futboleko ibiliak ziren aurrez, baina gehienak futboleko jokatu gabekoak ziren. Aurten entrenatzaile egoki bat daukagu talderako, titulatu da, esperientziaduna eta gustura gaude. Ikasteko fasean dago oraindik taldea, eta baina emaitzak etorriko dira.

♦ **Futbol Eskolako entrenatzaileak emakumeak izatea neska gaztetxoentzat garrantzitsua dela uste duzu?**

Baietz esango nuke. Iruditzen zait nesketzat emakumezko erreferenteak edukitzea positiboa dela. Baina Futbol Eskolaz ari garela aipatu behar dut Mikel {Elkoroiribe}. Guretzako Mikel bezalako entrenatzaile bat edukitzea Futbol Eskolan sekulako altxorra da, eta badakigu gure umeak oso ondo heziko dituela.

♦ **Realarekin ere baduzue harremana. Zertan laguntzen dizue?**

Hezitzaile faltan egoten garenean laguntzen digute entrenamendu saioak antolatzen, baina emakumezkoen futboleko oraindik ez dugu Realarekin gehiegi kolaboratu. Laz estreinakoz Elgoibarko emakumezko futbolari bat eraman zuten Realak beraiekin entrenatzera, Elene Beristain, eta espero dugu ez dadila azkena izan! Campusak antolatzen ere lagundu digu Realak, eta beste gauza askotarako ere badakigu hor dagoela.

“Gustatuko litzaiguke emakumezkoen talde nagusia ere erreferente bihurtzea herrian”



Mikel Elkoroiribe, entrenamendu saio batean.

Jokatzetik zuzendaritzara

MARTA DIEZ ZUZENDARITZAKO KIDEA

CD Elgoibarrek 93-94 denboraldian urtean sortu zuen estreinako emakumezkoen taldea, eta beste zenbait emakumerekin batera, Marta Diez izan zen talde hartako jokalarietako bat. Gaur egun zuzendaritzan dago, eta horrez gain gain, Futbol Eskolako hezitzailetako bat ere bada.



14 urte zituen Marta Diezek futbolean jokatzen hasi zenean. Eskola Kiroleko Ikastolako neska talde bat hondartza-futbolean jokatzen hasi zen Deban, eta handik urtebetera CD Elgoibarren jokatzen hasi ziren, Mintxeta sortu zuten urte berean. 93-94 denboraldia zen, baina orduko oroitzapenak atzo goizekoak balira moduan gogoratzen ditu Martak: "Nire bizitzako etaparik garrantzitsuenetarikoa izan da, eta oroitzapen oso politak ditut. Orditik erabat aldatu da futbola. Micasa etxeko baloi gogorra baino gogorrago batekin jokatzen genuen guk, eta bustitzen zenean ez zegoen hura mugitzerik! Buruz jotzean ere zorabio moduko bat sentitzen genuen! Gaur egungo erropek ere ez dute ordukoekin zerikusirik. Gureak Haundiko jokalarien XXL tailako erropak ziren, oso zatarrak". Futboleko jokalariek adina edo garrantzia gehiago izan ohi du entrenatzaileak, eta Martak ez ditu ahaztu urte haietan beraien entrenatzaile izandakoak: Roberto Garcia eta Alberto Hernandez. "A ze pazientzia zeukaten gurekin! Emakumezkoak sentsibilitate berezia dugu eta oso ondo zaintzen gintuzten. Gure aitak modukoak izan ziren". Esker oneko hitzak baino ez ditu haientzat: "Haiei esker iraun zuen gure taldeak".

Taldeak lorpen handiak izan zituen, Regional mailan bereziki: "Regional mailan oso onak ginen eta dena irabazten genuen. Mailaz igo ginen eta partida bakoitzean zazpi-zortzi gol jasotzen hasi ginen. Ez genekien galtzen, eta denboraldi hura polita izan zen alde batetik, baina oso gogorra bestetik". Berriz jaitsi ziren Regional mailara eta han egin zituzten beste urte batzuk, baina adinean aurrera joan ahala, taldea uzten joan ziren jokalariek, ama izaten hasi zirelako: "Izan genuen erreleboa eta talde

berriak ere irabazi zuen Koparen bat, baina ez zituen urte asko iraun talde hark". 2013-14 denboraldian desagertu zen taldea.

Orain dela sei urte CD Elgoibarko zuzendaritzakoak Marta Diez eta Vanesa Ortuetarekin jarri ziren harremanetan, emakumezkoen futbola berreskuratu nahi zutela esanez: "Ezin genuen sinetsi! Pozez zorutzen jarri ginen! Guk ere alabak ditugu eta gure ilusioa gure alabek ere futbolean jokatzea izan da beti, guk jokatu genuen moduan". Zuzendaritzan sartu ziren biak, eta Martak bertan jarraitzen du oraindik, gizonzkoen artean, emakumezkoen futbolaren aldeko borrokan. Mila aldiz entzun izan du emakumezkoen futbola ez dela ez futbola eta ezta femeninoa ere, baina ez du esaldi hori barkatzen: "Sutan jartzen naiz! Emakumezkoen futbola asko aldatu eta gaur egun maila altua dago emakumezkoen artean ere". Berak jokatzen zuenean jokoa askoz motelagoa zela dio, eta ikusteko askoz aspergarriagoa, baina gaur





ROBERTO, ITZIAR, IRENE, AMAIA E, IVANA, MIREN, AMAIA B, OIHANA, NEREA, RUT, PATRICIA, LORENA, ALBERTO
EVA, MAIDER, MONICA, VANESA, ITZIAR G, MARTA, LEIRE, MIREIA, LAURA, MIRIAM, PACO.

egungoa futbol "ona" iruditzen zaio: "Gu ikasleak ginen, langileak eta futbolari eskaintzen genion ahal genuena, baina gaur egun emakumezkoen futbola ere profesionala da. Egungo neskek ez dute Messi edo Ronaldoren inbidiarik joan". Zorionez, gazteengan pentsakera hori aldatu dela uste du, eta gaurko gazteek emakumezkoen futbola ere balioan jartzen dutela dio. Hala ere, berdintasunaren bidean lan asko ikusten du oraindik egiteko. Hasteko, ordutegiak aldatzeko beharra ikusten du: "Umeen edozein taldek emakumezkoen taldeak baino ordutegi hobea izaten du! Ez dago eskubiderik". Bere garaian ere gogoan dauka beti ordutegirik "txarrenak" jartzen zizkietela entrenamenduetarako, eta entrenamendu egunetan gaueko 22:00etan iristen zirela etxera. Zentzu horretan, gaur egun, ordutegiak berdindu dituzte eta saiatzen dira mutilei bezala ordutegiak egokitzen. Taberna bat dauka herrian Martak, eta herritar asko joaten da hara Athletic-en partidak ikustera, batez ere, baina berak emakumezkoen futbola ere jartzen du telebistan: "Ez da inor etorzen partida horiek ikustera".

Etorkizunari buruz hitzegitean, Futbol Eskolaren garrantzia nabarmendu du, etorkizuneko futbolarien harrobia delako. Bere iritziz neska gazteen jarraikortasuna bermatzeko oso garrantzitsua da entrenatzaile emakumezkoak ere egotea, hobeto elkar-ulertzen dutelako, eta horregatik entrenatzaile titulua ere atera du. Futbol Eskolan Itziar Gurrutxaga moduko futbolari bat edukitzea guretzako luxu bat da. Itziar emakumezkoen futbolearen erreferente da, eta CD Elgoibarko entrenatzaile izatea

ohorea da guretzat. Oso pozik gaude gurekin dagoelako, beti dago laguntzeko prest eta dena ematen du guregatik. Ruth Gurrutxaga ere gurekin dago, Amaia Epelde ere aritu da entrenatzaile lanetan eta orain ni ere hasiko naiz". Umeekin lanketa berezia egin behar dela uste du, emakumezkoen futbola haien artean zabalitzeko: "Ume guztiek ezagutzen dituzte Realeko, Bartzelonako, Athletic-eko edo Madrilgo jokalari gizonezkoak, baina emakumezko futbolarien izen bat bera ere esateko ez dira gai". Alor horretan, kromoen alburmean emakumezko futbola sartzea ere ondo egongo litzatekeela iruditzen zaio.

CD Elgoibarko zuzendaritzan gizonezkoen inguratuta dihardu lanean, eta aitortzen du "sarritan" haserretzen dela, haiek ez dutelako futbola berak sentitzen duen moduan sentitzen. Bere ustetan emakumezkoak "bereziak" dira, eta sentibiltate bereziarekin zaindu behar dira.

CD Elgoibarrek emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna lortzea du helburu eta horretan lanean dihardute. Kategoria hauetan berdintasuna lortzea posible ikusten du Diezek, baina lehen mailan ez du uste inoiz berdinduko direnik emakumezkoen eta gizonezkoen baldintzak: "Nik ez dut hori ezagutuko. Nire alabak agian bai, baina zalantza handiak ditu". Babesle handiek gizonezkoen futbola babesten dute bereziki, baina alor horretan Diezek eskerrak eman dizkio Lauko enpresari klubaren izenean, emakumezkoen futbol guztia babesten duelako: "Futbol Eskola Alkorta babesten du, baina Laukok babesten ditu CD Elgoibarko emakumezkoen talde guztiak eta guretzat hori oso garrantzitsua da".



ITZIAR GURRUTXAGA FUTBOLARI OHIA ETA ENTRENATZAILEA

“Asko hobetu dira baldintzak emakumezkoen futbolean”

Futbol Eskola da CD Elgoibarren harrobia lantzeko gunea, eta azken urteotan arreta berezia jarri du klubak Futbol Eskolan. 170 bat ume ari dira, hamabi entrenatzaileekin, eta horietako bat da Itziar Gurrutxaga, Athletic-eko futbolaria izandakoa. Hala ere, gainerako entrenatzaileen lana ere indarrean jarri du klubak, eta baita Gurrutxagak berak ere, eta Futbol Eskolaren arrakasta denen lanaren emaitza dela nabarmendu du.

♦ 170 ume daude Futbol Eskolan, eta horietatik ia 50 dira neskek. Zein izan da arrakasta horren arrazoia?

Futbol Eskola martxan jarri genuenetik seigarren urtea da hau, eta poliki-poliki ume kopurua handitzen joan da. Hasierako urteetan igandetan izaten ziren Futbol Eskolako saioak, eta orduan oso ume gutxi etortzen ziren. Gero astezkenera pasatu zuten, eta uste dut aldaketa horrek eragin handia izan duela. Mendaroko umeak ere etorri dira, eta aurten inoiz baino neska gehiago ditugu gainera. Pozik gaude.

♦ Entrenatzaileen artean, emakumezkoak ere bazaudete. Uste duzu hori garrantzitsua dela futbolean hasten diren nesken-tzat?

Bai, izan daiteke, baina entrenatzaile gizonetakoekin ere gustura dabilta. Guk ere entrenatzen ditugu mutilak eta ez da arazorik egoten, baina bai, beti da garrantzitsua emakumezko erreferenteak edukitzea. Entrenatzen ari garen emakumezko guztiok gainera futbolean jokaturakoak gara, nahiz eta beraiek ez gaituzten futbolari moduan ezagutu, baina kontatzen dizkiegu gure anekdotak.

♦ Emakumezkoen futbolean erreferente zara, eta CD Elgoibarko zuzendaritzak dio luxu bat dela zu entrenatzaile moduan edukitzea. Nola iritsi zinen klubera?

Athletic laga nuenean ez neukan buruan entrenatzaile izatea, beste gauza batzuen artean, ama izan nahi nuelako. Orain umeak hazi dira, eta beraiek ere Futbol Eskolan dabiltzanez, errazagoa da niretzat. Oso gustura nago, egia esanda. Entrenatzaile tituluak ere atera ditut, lehenengoa eta bigarrena, baina hirugarrena ez dakit aterako dudana. Ez neukan erabakita entrenatzaile tituluak ateratzerik, baina parean suertatu zen eta atera nuen.

♦ Futbol Eskolan zein balore lantzen dituzue umeekin?

Futbol Eskolara etortzen diren asko ez dira futbolzale amorratuak, eta asko arratsalde-pasa etortzen dira. Jolastu eta lagunekin egotera etortzen dira asko, eta gure helburua izaten da batez ere bizitzarako beharrezkoak dituzten baloreak erakustea: errespetua, laguntasuna, taldelana...

♦ Klubaren helburuetako bat da emakumezkoen futbola indartzea, eta dagoeneko kategorია guztietan ditu nesken taldeak.

Bai, poztekoa da. Gurea izan zen CD Elgoibarren lehenengo emakumezkoen taldea eta azken urteetan hutsunea egon da alor horretan. Beste herrietan emakumezkoen taldeak gora egiten hasi ziren eta Elgoibarren talderik ez egoteak pena ematen zuen. Elgoibarko neska batzuk kanpoko taldeetara joan behar izan zuten jokatzera, eta orain herrian bertan aukera egotea, oso ondo dago.

♦ Zu lehenengo mailan jokaturakoa zara, eta kategoría horretan emakumezkoen eta gizonetako arteko desberdintasunak nabarmenak dira. Nola ikusten duzu egungo egoera?

Fisikoki desberdinak gara, hori argi dago, baina jokoa gero eta antzekoagoa da. Lan baldintzak desberdinak dira, baina nik 2008an laga nuen futbola eta ordurako asko hobetuta zegoen egoera. Lehen mailako emakumezkoak profesionalak dira, soldata duin bat dute, goizez entrenatzen dute... Soldata sekula ez da izango gizonetako berbera, baina ezta nahi ere! Gizonetako futbolak mugitzen duen dirutza hori kritikatu izan dut beti, eta niretzako helburua ezin da izan hori berdintzea. Lan baldintza duinak eskatzen ditugu, eta hori uste dut lortzen ari dela.



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus ☎ 943 744 112 📞 688 634 044



Antenek kezka sortu dute Santa Klara auzoan: "Idotorberako bidean telefoniako antenak daude jarrita. Antena hauek hiru enpresa ezberdinenak dira eta badirudi instalazio hori gobernu zentraletik kudeatzen dutela. Orain dela 20 urte inguru, telekomunikazioen lege bati esker, antenen erradiazio maila handitzea baimendu zuten, eta horrek Santa Klara auzoko etxeetan eragin handia dauka. Etxe asko eta ume parkeak antena horietatik oso gertu daude eta bertako erradiazio maila oso altua da. Europako herrialde gehienetako araudia askoz zorrotzagoa da, eta ez dute herri barruan antenarik jartzea baimentzen. Auzoan kezka sortu da eta antenak dauden eraikuntzan kartel batzuk jarri dituzte *Antenarik ez, antenas no lelopean*". Udaleko Hirigintza Sailetik jakinarazi dute legeak baimentzen duenaren azpitik dagokela zonalde horretako erradiazio maila.



Kartoiz beteta uzten dute umeek Aita Agirre Kingurua: "Sentimendu kontraerriak eragin dizkit irudi honek: batetik, sekulako poza eman dit azken egunotan umeek kartoiekin jolasean ikusteak. Askotan esaten dugu umeek ez dakitela pantailak ez den beste ezerekin jolasten, ez dakitela aspertuta egoten, eta niretzat pozgarria izan da kartoi pusketekin jolasten umeak hain pozik ikustea. Bestetik, baina, ingurunea zikin-zikin eginda utzi dute, eta hor ueste dut gurasoen papera ezinbestekoa dela. Erakutsi egin behar zaie umei ondo pasatu ostean ingurunea apur bat txukuntzen".



Sigmako inguruneak zabortegia dirudi: "Sigmako industriguneko lorontzi eta lorategiak erabat utzita daude, eta dena zikin-zikin eginda dago. Enpresa asko dago ingurune honetan, eta bezeroak etortzen zaizkigunean lotsa puntua ere sortzen digu egoera honek. Eskertuko genuke ingurunea txukuntzea".

Petardoak botatzen dituzte kalean, edozein leku eta edozein ordutan: "Herri hau zertan bilakatzen ari da? Gaur egungo gazteentzako besteak izorratzea al da ondo pasatzeko modu bakarra? Alde zaharreko kaleetan gazteak petardoak botatzen ibiltzen dira, edozein lekutan eta edozein ordutan. Bizilagunentzako oso deserosoa da, baina gainera, arriskutsua ere bada, jendea gertu egonda ere botatzen dituztelako. Uste nuen debekatuta zegoela piroteknia Elgoibarren, baina badirudi dena libre dela. Piroteknia saltzea bera ere debekatuta egon beharko litzateke". Udaletik jakinarazi dutenez, udaltzainek hainbat gazteri kendu izan dizkiete petardoak.

Gabetik goizera: Azkar, bat-batean.

Gero, eztaikit zer enfermedade harrapau ziuen, eta jota gabetik goizera, jota.

Lehen saria jaso du Jose Ramon Cabrerak Ermuako argazki lehiaketa batean



Jose Ramon Cabrera argazkilari elgoibartarrak Ermuko Udalak antolatutako argazki lehiaketa bat irabazi du. 2021eko *Oporrak* izena zeukan lehiaketak, eta oporretan ateratako argazkiak aurkeztu behar ziren. Edozein izan zitekeen argazkiaren gaia, eta edozein lekutan ateratako argazkiak aurkeztu zitezkeen. Cabrerak Galiziako Combarro (Pontevedra) herriko ilunabar batean aletegi bati ateratako argazkia aurkeztu zuen, eta epaimahaiak lehenengo saria eman dio.

Eneko Etxanizek bigarren egin du Euskal Herriko Aurreku Txapelketa Nagusian

Euskal Herriko Aurreku Txapelketa Nagusia jokatu zuten zapatuan Hondarribian, eta beste hainbat herriko dantzariekin batera, Haritz Euskal Dantzari Taldeko eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako bost dantzari hartu zuten parte: Markel Goenaga, Jone Gil, Eneko Etxaniz, Maddalen Oñederra eta Jon Etxeberria. Dantza taldeko irakasleek



bostak zoriondu dituzte emandako mailagatik, eta nabarmendu dute Eneko Etxanizek lortutako bigarren postua. Bost dantzari havek elkarrekin dantzatuko dute Musika Eskolako Gabonetako kontzertuan, parrokiari.



'Mendarock' kontzertua bihar, Herriko Enparantzan

Mendarock jaialdia antolatu du Mendaroko Udalak biharko, "herria bizirik mantendu, bertako mugimendu kulturala bultzatu eta ehun ekonomikoari laguntzeko". Hiru kontzertu izango dira jaialdi beraren barruan, eta hirurak doan. Etorkizun beltza (Gernika), Anker (Legazpi) eta Paraside (Gasteiz) taldeek metal doinuak ekarriko dituzte Mendarora. 21:00etan hasiko da musika jaialdia.

'Perez sagutxo' antzerkia domekan, Herriko Antzokian


Glu-Glu antzerki taldeak Perez Sagutxo antzezlanaren taularatuko du domekan, Herriko Antzokian. Perez sagutxoaren kondairak muga, belaunaldi eta amets asko gairatu ditu urteetan zehar, eta etxetako burko asko izan dira kondaira horren lekuko. Ipuin klasiko moduan, komedia lehenetsiz, eta dantzekin eta abestiekin jolastuz, alegiazko istorio honen benetako bertsioa ekarriko du Glu Gluk. Istorioaren erdigunean zaintza egongo da; pertsona ahulenen zainketa. 16:30ean hasiko da ikuskizuna. Sarrerak www.herrikoantzokia.eus atarian erosi daitezke, eta agortzen ez badira, egunean bertan txarteldegian ere salduko dituzte. Kultura Saitetik jakinarazi dute sarreraren salmentan izandako arazo baten ondorioz, emanaldi honetarako sarrerak zenbakitu gabekoak direla.

'Euskarara hurbiltzen' egitasmoa sortu dute, familiak euskararen eta kulturartekotasunaren bidez elkartzeko

Euskarara hurbiltzen ekimena jarri dute martxan Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskaltzaleen Topaguneak, Elgoibarko Izarra elkarteak eta herriko ikastetxeek, elkarlanean. Elgoibarrera etorri berri diren familiei harrera egitea da egitasmoaren helburua, betiere euskara erdigunean jarriz, herriko beste familiekin harremanak sustatuz, kulturartekotasuna eta hizkuntza aniztasuna aitortuz eta elkarbizitza berdintasunean eraikiz. Euskaratik urrun dauden familiekin ere lan egin nahi dute, bereziki, euren seme-alabak euskarara hurbiltzeko eta euskarazko aisia eta kultura eskaintza eskura jartzeko. Azaroaren 27ra arte eman daiteke izena, eta proiektuari abendu hasieran emango diote hasiera familien arteko lehen topaketa batekin.



Gemma Monrealen erakusketa inauguratu zuten atzo Aita Agirre kulturgunean



Gemma Monreal margolariaren erakusketa antolatu du Aita Agirre Kultur Kafeak, eta hilaren 21era egongo da ikusgai. Akua-rela eta akrilikoak jarri ditu ikusgai margolariak. Ekainean hasi zen margotzen, eta azken hilabete hauetan sortutako 23 bat koadro erakutsiko ditu. Inspirazio une aberatsean dagoela aitortu du margolariak. Etxeak, leihoak, lorak eta paisajeak margotu ditu, batez ere, baina erakusketa honetan ikusleak harrituko dituen sorpresaren bat ere sartu duela azaldu du.

Santa Klarako mojei buruzko liburua aurkeztuko du eguaztenean Javier Elorza historialariak

Elgoibarko herriaren sorreraren 675. urteurreneko ekitaldien barruan, *Elgoibarko Santa Klara ordenako mojen monasterioa* liburua aurkeztuko du Javier Elorzak datorren eguaztenean. 2013an kaleratu zuen liburu honen beste edizio bat, baina orduan gaztelaniazko bertsioa egin zuen soilik. Orain liburu hura osatu du, testu, datu eta irudi berrieekin, eta bi hizkuntzatan idatzi du, euskaraz eta gaztelaniaz. XVI. mendean kokatu du liburua, eta batez ere, komentuarien sorrerari buruzko informazioa jaso du. Liburuaren bigarren zatian komentuan gordeta zeuden dokumentu zaharren transkripzioak sartu ditu. 500 urte baino gehiagoko dokumentuak zeuden komentuan eta haiek kontserbatzeko asmoz transkribatu ditu. Eguaztenean aurkeztuko du liburua, 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



Bi ekitaldi antolatu ditu 'Aldenik Alden' egitasmoak datozen asteburuetarako

Aldenik Alden egitasmoaren barruan bi ekitaldi antolatu dituzte LH 4, LH5 eta LH6ko umeentzako: Hilaren 14an *Berbaldixa* egingo dute, neguko oporraldia antolatzeko. Kultur Etxeko sotoan izango da, 17:00etatik 20:00etara, doan. Azaroaren 20an berriz, Eureka! Zientzia Museora egun osoko irteera egingo dute. Museoa ezagutzeaz gain, Robotika saioa ere izango dute bertan. Interesatuek 20 euro ordaindu behar dituzte (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 18 euro). Izena emateko epea gaur eguaztenean amaituko da. Informazio gehiagorako 943 741 746 telefonora deitu daiteke.




Hasi dituzte Basarteko skate parkea handitzeko eta hobetzeko lanak

Partaidetza bidezko aurrekontuetan herritarrek euren botuekin aukeratutako bost proiektuetako bat gauzatzeari ekin dio asteon Elgoibarko Udalak: Basarteko skate-parkea handitzea eta ingurua eraberritzea. Udalak 25.000 euroko (gehi BEZ) inbertsioa egingo du skate parkean, eta obra Zut Skateparks enpresak egingo du, 2018an parkea eraiki zuen enpresa berak, hain zuzen ere. Aste honetan hasi dituzten lanek hogeita bat egun irautea aurreikusten dute. Lanak amaitu ostean, skate parkeak 130 metro koadro inguru gehiago izango ditu, eta azalera berri horretan eraikiko dituzte patinatze pista lau bat, plano inklinatu bat, zintarri bat, baranda bat eta bihurtu bat. Horrez gain, ingurua ere hobetuko du Udalak, piknika egiteko pare bat mahai eta iturri bat gehituta.

Jokin Muñozek hirugarren egin du Manuel Mateosen oroimenezko lasterketan

Deba Extreme Taldeak antolatuta, 8. Manuel Mateos Memoriale jokatu zuten zapatuan, Deban. Ehun lagun pasa lehiatu ziren eta David Garcia durangarra izan zen 8,4 kilometroko ibilbidea osatzen azkarrena, 26 minutu eta 58 segundoko denbora eginda. Unai Ibarra sailkatu zen bigarren postuan (27:09) eta Jokin Muñoz mendarorak egin zuen hirugarren, 27 minutu eta 17 segundoko denborarekin. Julen Salaberria elgoibartarra ere lehen hamarren artean sailkatu zen, zortzigarren lekuan, hain justu ere, 28:26ko denborarekin. Muñoz "pozik" da Deban lorturiko emaitzarekin, eta esan du bere denboraldiko helburu nagusia den Valentziako maratoirako prestaketaren parte izan dela proba hau, maratoiko bere marka ontzea baitu helburu. Abuztutik buru-belarri dabil Valentziako maratoia prestatzen eta hura buruan lehiatzen da gainerako lasterketetan zein egiten dituen asteko entrenamenduetan. Astean 120 kilometro egiten ditu maratoia prestatzeko entrenamenduetan. Domekan Behobia-Donostia lasterketan hartuko du parte, eta horixe izango da aurtengo bere erronka nagusiaren aurreko azken lasterketa.



Mendi-Tour jaialdiko onena, gaur Elgoibarren



Bilboko Mendi Film Festival jaialdi entzutsuaren azken edizioan saritu zituzten filmak edota arrakastarik handiena izan zutenak proiektatuko dituzte, gaur (azaroak 12), Herriko Antzokian. 21:00etan hasita, iazko edizioko bost film emango dituzte: *Charge 2*, *Aterpean Ateri*, *The Wurl*, *Free as Can Be* eta *Mendian Hil*, *Hirian Hil*. Morkaikitik jakitera eman dutenez, bi orduko iraupena izango du saioak. Sarrerak Pitxintxun eros daitezke arrez, edo egunean bertan leihatilan, 4 euroan.

Euskadiko Judo Txapelketa: hamazortzigarren urrea Egoitz Morarentzat eta aurrenekoa David Mendazonarentzat

Gipuzkoako txapelketan lortu zituzten emaitzak errepikatu dituzte judo maisuak eta ikasleak senior mailako Euskadiko Judo Txapelketan ere. Oraingoan ere urrezko domina eskuratu zuten Egoitz Morak, 100 kiloz gorakoen kategorian, eta David Mendazonak, 60 kiloz azpiko kategorian. Biek eskuratu dute Espainiako Ipar Sektoroko txapelketa jokatzeko txartela. Ia 360 judoka lehiatu ziren joan den azaroaren 6an, Amurrio Hiribilduko Judo Txapelketan, non senior mailako Euskadiko Txapelketa ere jokoan zegoen, eta Egoitz Morak 100 kiloz gorakoen kategoriako tituloa lortu zuen, 2000. urtetik hona lortzen duen hamazortzigarrena. Denboraldi aparta burutzen ari da judoka elgoibartarra, belauneko lesio bategatik hiru urtean lehiatu gabe egon ostean, jokatu dituen txapelketa guztiak irabazi baititu: Beteranoentzako Espainiako Judo Txapelketa, Espainiako Judo Txapelketa Unibertsitarioa, Gipuzkoako Judo Txapelketa Nagusia eta Euskadikoa orain. 2.000. urtetik 2017. urtera bitarteko titulu guztiak irabazi zituen Morak eta hamazortzigarren urrezko domina ere etxean du. Eta lehiarako grinarekin jarraitzen du, lehiaketak laga aurretik hogeitxapelketa irabazita erretiratzea gustatuko litzaiokeelako. Era berean, badu erronka handiago bat denboraldi honetarako, Espainiako Txapelketa guztietan podiumera igotea, orain arte inork egin ez duena. Beteranoentzako eta Unibertsitateko urreak etxean ditu, eta zailena falta zaio, senior mailako Espainiako Txapelketan podiumera igotea. "Podiumera igotzarekin konformatzen naiz, irabaztea ez baitago erraza, dagoen mailarekin", azaldu du. Horretarako, baina, Espainiako Ipar Sektoroko txapelketa jokatu behar du lehenik, azken faserako sailkapena lortzeko. Iruñean jokatu dute sektore-fasea, domekan, azaroaren 14an. Familiari eta Esteban Arrillaga judo maisuari eskerrak eman dizkie Morak, ematen dioten babesagatik eta laguntzagatik.



51 elgoibartar eta 11 mendaroar Behobia Donostiarako prest

Iaz pandemiagatik jokatu gabe gelditu eta gero, domekan jokatu dute Behobia Donostia maratoi erdia, euskal korrikalarien lasterketa kuttunenetarikoa. Azkenengoz jokatu zenean, 2019. urtean, Fortunakoek 33.379 dortsal banatu zituzten, eta, aurtengorako 25.379 lagun daude izena emanda, horietako 8.604 emakumezkoak (%25,5a). Hau da, COVID-19 tarteko %25 gutxitu da parte hartzea. Guztira 247 dira 20 kilometroko proban parte hartzeko izena emanda dauden debabarrendarrak, horien artean 51 elgoibartar eta 11 mendaroar (2019koan 90 elgoibartarrek eta 19 mendaroarrek eman zuten izena).



Xabier Loiolak hirugarren egin zuen Markina-Xemeingo bola joko txapelketan



Euskal Herriko Hiru txirlo bola joko txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu zuten azaroaren 6an Markina-Xemeingo Lauzirika Herri Bolatokixen. Guztira 71 bolari lehiatu ziren txapelketako azkenurreko jardunaldian eta hiru bolari nabarmendu ziren, hirurek zortzi txirlo bota baitzituzten hiru jaurtialditan. Asola Berri taldeko Bittor Astigarraga bolari eibartarra gailendu zen, Floreagako Santos Muñozek egin zuen bigarren eta San Migel taldeko Xabier Loiolak hirugarren. Angel Ibarluzea elgoibartarrak bosgarren postua eskuratu zuen, zazpi txirlo botata. Txapelketako laugarren eta azken jardunaldia Azpeitiako Garmendipe bolatokian jokatu dute bihar, hilak 13. San Andres taldeko Jose Gabriel Nuñez dago sailkapen nagusiko lidergoan, 18 txirlo botata.

LANA.....
Eskaerak

Goizetan etxeak garbitzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 635 490 633

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka eta asteburuetan. ☎ 648 039 187

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, eta baita etxeko lanak egiteko ere. Etxeko langile moduan ☎ 643 411 292

Adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest. ☎ 631 342 098

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zainduko nituzke, goizez. Arreta soziosanitario titulua daukat. Esperientzia. ☎ 653 160 233

Lan bila nabil. 11:00etatik aurrera egingo nuke lan. Zaintza lanetan esperientzia handia. Arreta soziosanitarioko titulua daukat. Euskalduna naiz. ☎ 688 725 715

LH eta DBHko klase partikularrik emateko prest nago. Gizarte lana, Gizarte hezkuntza eta psikologiako graduak ikasten ari naiz. Euskalduna eta gaztea naiz. ☎ 649 446 529

Mutila lanerako prest. Adinekoak zaintzeko edo igeltsero, pintore zein arutz laguntzaile aritzeko prest. ☎ 642 196 564

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat, eta garabia erabiltzeko titulazioa ere bai. ☎ 641 322 939

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan. Etxeko langile moduan. ☎ 631 425 686

Haurrak zaintzen edota eskola partikularrik ematen egingo nuke lan. DBH4ra arteko ikasleei laguntzeko aukera daukat. Euskalduna naiz. ☎ 688 624 155

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Goizetan eta orduka. ☎ 641 821 288

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat zaintza lanetan eta sukaldari laguntzaile lanetan. ☎ 631 677 339

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat zaintza lanetan eta sukaldari laguntzaile lanetan. ☎ 643 776 157

Eskaintzak

Ingeles Filologian lizentziatua den pertsona behar da eskola-laguntzarako. Ordujabe eta egunak adosteko. ☎ 660 969 679

LOKALAK.....

Gazteentzako lokala alokatzen dugu, San Roke auzoan. 133 metro koadroko lokala da, irisgarritasun onekoa, larrialdietarako irteeraduna eta Udal arautegia betetzen duena. ☎ 679 332 407

GARAJEAK.....

Garaje itxia salgai edo alokairuan, San Roken, kiroldegi aurrean. ☎ 679 851 18

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoako Finantza Administrazioaren Kontseilua</p>  <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean, jabeekideek denontzako kuota bera izendatu genuen komunitateko gastuak ordaintzeko. Orain jakin dut partaide-kuotaren arabera zehaztu daitekeela nork zenbat diru jarri gastu horiek ordaintzeko. Hau da, etxejabeek ez genukeela denok diru-kopuru bera ordaindu behar. Jakin nahiko nuke ia orain arteko ordainketa-modua aldatzeko modurik daukagun.</p> <p>Faktore askoren arabera izango da hori. Ez da gauza bera urteetan kuota hori ordaintzen egon den etxejabe batek eskatzea edo komunitate horretara iritsi berri den etxejabe batek eskatzea. Kontuan hartu behar da, era berean, beste hainbat gauza: aurrez jabeekide guztien artean onartutako zerbait den etxejabe guztiek gogo onez betetzen egon diren hori, jabeekideen batzarrean ordainketa modu hori aldatzea aztertu den edo ez... Jabeekideen batzarrek ordainketa modu hori aldatzea erabakitzen badu, ez dago aldatzeko eragozpenik. Kuotak partaide kuotaren arabera ordaintzea proposatzen duena etxejabe berria bada eta Jabetza Erregistroan jaso gabe baldin badago orain arte ordaintzen egon diren kuota horrek zenbatekoa izan behar duen, etxejabe horrek lortu ahaliko du partaide kuotaren arabera dagokiona ordaintzea, Jabetza Erregistroan jaso gabeko akordioek ez dutelako baliorik.</p> <p>AHOLKUA: Etxejabeek ahoz adostutako akordioa baldin bada denek kopuru berean ordaintzea eta denek gogo onez bete badute orain artean, etxejabe horiek guztiak behartuta egongo dira adostutakoa betetzera, Jabetza Erregistroan jasota egon ez arren.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Ibon**, igandean 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.

Zorionak, **Beñat**, azaroaren 14an 3 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat familiarako guztion partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

EXPRESS ESKAINTZAK!

**GRUNDING
ARROPA
GARBIGAILUA
GWX38232R**



399 €
(dendako prezioa)



- Display Digitala / HygieneCare: Babes alergiko bati esker %99,9ko higiezia bermatzen du.
- 16 garbitze-programa.
- Arropa garbigailua zaintzen duen danbor garbigailua.
- Saio laburrak: 30 min eta 14 min-koak.
- 6 eginkizun osagarri - EcoMotor Inverter 10 urte bermea.
- 8kg-ko karga - 1200 b/min - Inox-a, aztarnen aurkakoa.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA!

Aurreko urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Errigorako saskiak



"Gipuzkoan zehar" liburuak



"Irteera argiak" musika cd-a



Betaurrekoentzako estutxea



"El jueves a las cinco" liburua eta poltsa



"Amona Tomaxaren abenturak" ipuinak



1.000 erregalu baino gehiago...



Solarium bonoa



Pultserak



Itzulapikoak



Girlanda



Ilerako produktuak



Produktu sorta



Marrazkiak

... eta opari gehiago!

12 BARIKUA

21:00 Ikusentzunezkoa: Mendi Film Festibala. Morkaikok antolatuta, Bilboko Mendi Film Festibaleko azken edizioko filmak. Herriko Antzokian. Sarrerak, 4 euroan. Pitxintxun erosi daitezke aurrez, eta bestela, Herriko Antzokiko leihatilan.

13 ZAPATUA

13:00 Omenaldia: Koldo Aranbururi azken agurra. Giza Eskubideen parkean.

18:30 Erakusketa: Angel Ispizua argazkilariaren 'Itsasoaren aurrean' argazki erakusketa ikusteko azken eguna.

21:00 Kontzertua: 'Mendarock'. Mendaroko Udalak antolatuta, Etorkizun beltza (Gernika), Anker (Legazpi) eta Paraside (Gasteiz) taldeen kontzertua. Herriko Enparantzan.

14 DOMEKA

16:30 Antzerkia: 'Perez sagutxo'. Glu Produzioak taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

16 MARTITZENA

17:00 Ipuinkontalaria: 'Aniztasunerako klowntuak'. Itziar Saenz de Ojerrek kontatuko du ipuina. Gotzon Garate Liburutegiak antolatuta, Aita Agirreko areto nagusian. Lehenengo saioa LH1 eta LH2koentzat, eta 17:30ean LH3 eta LH4koentzat.

17:30 Gazteentzako tailerra: 'Osasun mentala: zeure burua ulertzen ikasi'. Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

17 EGUAZTENA

19:00 Liburuaren aurkezpena: 'Elgoibarko Santa Klara ordenako mojen monasterioa. Komunitatearen sorrera eta bilakaera, XVI. mendean. Javier Elortza historialariak aurkeztuko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

18 EGUENA

10:00 Informazio mahaia: Parkinson gaitzari buruzko mahaia jarriko du Deparkel elkarteak, Gizarte Zerbitzuen Sailaren laguntzaz. Kalebarren plazan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'El buen patrón'

13 zapatua: 19:00 / 22:15

14 domeka: 19:00

15 astelehena: 21:00



'Pleasure'

(Ongarri zinekluba)

17 eguaztana: 21:00



I. URTEURRENA

Antonia Carrero Romero

2020ko azaroaren 11n hil zen, 75 urte zituela.

**Ezin ikusi, baina bai sentitu.
Joan zinen arren, gure bihotzetan beti zaude bizirik.**

Zure seme-alaba eta bilobak.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

12 BARIKUA	13 ZAPATUA	14 DOMEKA	15 ASTELEHENA	16 MARTITZENA	17 EGUAZTENA	18 EGUENA	19 BARIKUA
Egunez Arriola	Egunez *Fernandez *Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

AZOKAK: GAZTAÑERRE ETA SAN MARTIN AZOKAK, SORALUZEN ETA ERMUAN

Azokak ere itzuli dira, eta bihar, azaroak 13, bi azoka egingo dituzte Debabarrenean: Gaztañerre azoka egingo dute Soraluzen, eta San Martin azoka, Ermuan. Pandemiara egokituta antolatu dituzte, baina bietan ere euskal baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai.

Azaroak 25: Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna

AZAROAK 16, MARTITZENA

17:00 eta 17:30 Umeentzako ipuin kontaketa: 'Aniztasunaren Klowntuak'. Aita Agirreko Areto Nagusian.

AZAROAK 17, EGUAZTENA

18:30 Uluka batukada. Maalako parkean.
21:00 'Pleasure' filma, Herriko Antzokian.

AZAROAK 18, EGUENA

17:00 Txapa tailerra eta hausnarketa feministak. Gaztelekuan.
18:00 Dokumentala: 'Fabricando mujeres'. Lilan.

AZAROAK 19, BARIKUA

19:00 Bideo foruma: 'Las elegidas'. Lilan.

AZAROAK 20, ZAPATUA

9:30 Emakumeentzako autodefentsa tailerra. Olaizaga kiroldegian.

AZAROAK 22, ASTELEHENA

16:30 Tratu onen fotokola. Ludotekan.

AZAROAK 23, ASTELEHENA

16:30 Tratu onen fotokola. Ludotekan.

AZAROAK 24, MARTITZENA

21:00 Filma: 'Sólo una vez'. Herriko Antzokian.

AZAROAK 25, EGUAZTENA

19:15 Elkarretaratzerako hitzordua Gaztelekuoentzat, Aita Agirre plazan.
19:30 Elkarretaratzea Kalegoen plazan. Segidan, manifestazioa, indarkeria matxistaren kontagailua dagoen lekuraino.

AZAROAK 29, ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea. 'Bakarrik bai da bai'. Lilan.



Manu Sanchez

Izaro Etxegibel



Ezagutzen ez ditudan pertsonen bizitzak imajinatzen ditut askotan. Asmatu egiten ditut.

Batez ere oporretan, autobideetako zerbitzuguneetan geratzen garenean hasita. Ez dakit nola aukeratzen ditudan

personak. Ondoan eseri zaizkidalako, atentzioa eman didan zer bait ikusi diedalako: eskuan dutena, soinean daramaten jertsea, betaurrekoak, zapatak, ibilera, orrazkera, izena.

Bikote ingeles bat dago hotelean, 3 urteko umearekin. Uste dut neska ez dela umearen ama; mutila da aita, asko maite du. Neska etzanda egoten da, oso gaztea da, ez du umearekin jolasten, ez du musukatzen, ez da bere ama. Nolakoa ote da ama? Bizirik egongo da? Non?

Beste bikote bat, 60 urte ingurukoak biak, eta 15 bat urteko alaba. Nagusi izan zuten. Irribarretsu beti. Elkar agurtzen dugu, hitzik gabe, begiradarekin, irribarrearekin. Egunak dira jangelan topo egiten. Ile kizkurra du amak, zuria, eta betaurreko borobilak, txikiak. Irakaslea da, musika irakaslea; ona, ikasleak

gustura sentiarazten dituen. Ez da polita, baina oso atsegina da eta polita ematen du. Pianoa jotzen du. Aita handia da, Greziakoa edo egiptoarra. Idazlea? Margolaria? Unibertsitateko irakaslea? Liburu arraro bezain ederra du esku artean. Papiroa ematen du. Jakintsua da.

Hau ez da inoren etxea eta denona da, egun batzuez.

Etxeak ere irudikatzen ditut. Asko gustatzen zaizkit, denak. Nolako etxea izango dute? Ziur etxe polit batean bizi direla. Frantzia? Lorategia dute. Amak altzari zaharrak margotzen ditu eta landareak hil egiten zaizkio, baina maite ditu. Aitak etxera ekartzen ditu bere lagun jakintsuak, Greziako jakiak prestatzen dizkie, edo Egiptokoak? Frantsesez hitz egiten du lagunekin.

Sukaldea nolakoa ote da? Ume ingelesaren ez-amak zer jaten du? Badaki sukaldatzen?

Neguan zer janitzen dute? Nolako abrigoak? Txapela erabiko dute? Asteazken batean, lanera doazenean ikusiko banitu, ezagutuko nituzke inoiz ikusi ez ditudan etxeetatik irten, eta, inoiz ikusi ez ditudan kale edo errepideetan zehar, inoiz ikusi ez dudana lantokira sartzen direnean?

“Etxeak ere irudikatzen ditut. Asko gustatzen zaizkit, denak”



Jesus Aizpurua Epelde

"Eskapaixo"

2021eko azaroaren 4an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Lourdes Alberdi Salaverria

2021eko azaroaren 7an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Lourdes Alberdi Salaverria

2021eko azaroaren 7an hil zen, 91 urte zituela.

*Lourdes laguna, utzi gaituzu,
albistea ze tristea,
urte askoan laguntzeko prest,
eta animoz betea;
zuk emandako indar guztiaz
jarraitu dugu katea,
zuk eman eta guk jaso dugu,
benetan inportantea,
gure herria bilakatzeko
euskalduna ta askea!*



I. URTEURRENA

Petra Merino Pozo

2020ko azaroaren 10ean hil zen, 86 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, azaroaren 14an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

**Udazkeneko hostoak erortzearekin batera
alde egin zenuen gure artetik,
baina ez orduan eta ez sekula ere,
ez zara joango gure bihotzetatik.**

Etxekoak





Aske eta berdinen Euskal Herria lortu arte!

MANIFESTAZIO NAZIONALA

Autobusak Santa Klara auzoan, 15:30ean.



AGRI
ETA BERRIKEN
EUSKAL HERRIA

Lortu arte!

#Elgoibar #A20NBilbora

Azarok 20 • Bilbo • 17:30 • La Casilla